


TXIKI



Cristiñau - Icasbidea

BIZCAIERAZ

Lenengo Malla

TV
892



CRISTIÑAU-ICASBIDEA

LENENGO MALLA

SARRERA

† GALDERA. Cristiñaua zara?

ERANTZUERIA. Bai jauna, cristiñaua naz, Jaungoicoari esquerrac.

† 2. G. Cristiñaua izatea zer da?

E. Cristiñaua izatea da Jesucristoren iracatsiac sinistu ta bere esanetara esquiñiric egotea.

† 4. G. Ze ezaugarri daucagu cristiñauoc?

E. Cristiñauoc daucagu gueure ezaugarritzat, curutze santua.

† 8. G. Eracutsi zelan eguiten dozun «Curutze Santuaren»?

E. «Curutze Santuaren» eguiten da onetara: Curutze Santuaren † señaileagaitic, gueure † areriuetic † zaindu gaizuz † gueure Jaun eta Jaungoicoa.

† 13 G. Eguizu «Aitearen?»

E. «Aitearen» onanche eguiten da: «Aitearen» eta Semearen † eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

Lenengo Satia

CREDOAC IRACASTEN DEUSCUNA

† 28 G. Credoan ezan eguizu?

E. Credoan sinistzen dot, Aita Jaungoico guztia dayan zeru eta lurren eguilleagan eta bere Seme Bacar Jesucristo gueure Jaunagan, zein sortuz zan Espiritu Santuaren egui tadaz eta jaiotzan Maria Virgiña gantic; Pontzio Pilatosen aginduaren beian; izan zan curutzian josi, illa eta enterraua; jatsi zan inpernue-tara eta irugarren egunean bistuzala illen, artetic; igon zala zeruetara eta dauala jarrita Aita Jangoicoaren alde escumacotic; andic etorrico dala biziac eta illac epaitzera; sinisten dot Espiritu Santuagan; eleisa Santa Catolica; Santuen Comuniñoa; pecatuen parcasiñoa; araguiaren bistuerea eta betico bizitzea. Amen.

† 30 G. Sinismena, zer da?

E. Sinismena da icusi eztoguna eguiatzat euquitea, Jaungoicoac alan aguertu dabelaco.

† 39 G. Zertzuc gauza dira zuc cristiñau-
lez sinistzen dozuzanac?

E. Nic cristiñaulez sinistzen dodaz Jaun-
goicoac Eleisiari aguertunico eguia guztiac;
eta batez bere, Creduan dagozanac.

† 45 G. Zeinda Credoaren lenengo sinis-
caya?

E. Credoaren lenengo siniscaya da: Si-
nistzen dot Aita Jaungoico guztia dayan, zeru
ta lurraren eguilleagan.

† 46 G. Nor da gure Jaungoicoa?

E. Gure Jaungoicoa da ez iñoc esan, ez
asmua al leiquian baño, gauza aundi eder, eta
goratuagoa; azquen baric ona, jaquituna, zu-
zena, gauza guztian asiera ta azquena eta onari
betico atzeguiña eta dongai betico zori charra
emongo deutsena.

† 52 G. Non dago Jaungoicoa?

E. Lecu guztietan dago Jaungoicoa.

† 53 G. Jaungoicoac guztia ete daqui?

E. Bai Jauna, Jaungoicoac guzti guztia da-
qui, baita bere gure gurari eta burutasun barru
barrutico ta ezcutuenac be.

† 57 G. Zenbat Jaungoico dagoz?

E. Jaungoico bacar bat baño ez daugo.

† 58 G. Trindade edo Irutasun guztiz Santua da, Jaungoicoa berbera iru persona banac Jaungoico eguiazco bacar bate_n.

† 59 G. Iru persona Jaungoicozco oneri zelan dericho?

E. Iru persona Jaungoicozco oneri dericho: Aita, Semea ta Espiritu Santua.

† 68 G. Zegaitic dericho eguillea Jaungoicoari?

E. Deituten jaco eguillea Jaungoicoari, berac, ezerbere ezetic, gauza guztiac etara zituelaco.

† 88 G. Zetaraco eguiñ eban Jaungoicoac guizona?

E. Jaungoicoac eguiñ eban guizona, bizitza onetan bere esana eguin eta guero, bera icusi eta maitatuaz beti sorionecua izateco zerruan.

† 97 G. Zeinda Credoaren bigarren siniscaya?

E. Credoaren bigarren siniscaya da Sinistzen dot Jesucristo, gueure Jauna-gan.

† 98 G. Irutasun guzti Santuco iru personetatic, zein eguin zan guizon?

E. Irutasun guztiz Santuco iru personetatic bigarrena, Semea eguinzan guizon.

† 102 G. Eta nor da Jesucristo?

E. Jesucristo da, gu erosi eta guri zelan

bizi iracastiarren guizon eguinzan Jaungoicoaren semmea.

† 109 G. Zeinda Credoaren irugarren siniscaya?

E. Credoaren irugarren siniscaya da: Sinistzen dot Jesucristo sortua izan zala Espiritu Santuaren eguitadaz eta jayozala Maria Virgiña gandic.

† 124 G. Zeinda Credoaren laugarren siniscaya?

E. Credoaren laugarren siniscaya da: Sinistzen dot Jesucristo gure Jauna, Poncio Pilatosen aguinduaren beian, izan zala zauritua, curutzian josi, il, eta lurpetu edo enterraora.

† 127 G. Ze gaitic igaro gure izan zituan Jesucristoc pasiño eta curutzeco eriotzea?

E. Gure pecatu zorra ordaindu eta betico eriotzatic gu ataratiarren, gura izan eban Jesucristoc bere Pasiño Santua igaro eta Curutzean iltea.

† 131 G. Credoaren bostgarren siniscaya, zeinda?

E. Credoaren bostgarren siniscaya da: Sinistzen dot Jesucristo inpernuetara jatsi, ta irugarren egunian bistu zala illen artetic.

† 138 G. Zeinda Credoaren seigarren siniscaya?

E. Credoaren seigarren sicascaya da: Si-

nistzen dot Jesucristo zeruetara igon zana eta Aita Jaungoico guztia dayanaren escumaco aldetic jarrita dagoala bertan.

† 142 G. Zeinda Credoaren zazpigarren siniscaya?

E. Credoaren zazpigarren siniscaya da: Sinistzen dot Jesucristo etorrico dala biziac eta illac juzguetara edo epaitzera.

† 147 G. Zeinda Credoaren zortzigarren siniscaya?

E. Credoaren zortzigarren siniscaya da: Sinistzen dot Espiritu Santuagan.

† 154 G. Zeinda Credoaren bederatzi garren siniscaya?

E. Credoaren bederatzi garren siniscaya da: Sinistzen dot Eleisa Santu Catolicoa: Santuen comuniño edo alcartasuna.

† 176 G. Zeinda Credoaren amargarren siniscaya?

E. Credoaren amargarren siniscaya da: Siniztzen dot pecatuen percamena.

† 178 G. Zeinda Credoaren amaicagarren siniscaya?

E. Credoaren amaicagarren siniscaya da: Siniztzen dot araguiaren bistueria.

† 179 G. Zeinda Credoaren amabigarren siniscaya?

E. Credoaren amabigarren siniscaya da: Sinistzen dot betico bizitzea.

† 186 G. Nora joangoda gure arimea bacocharen banaco epai edo sententzia onen ondoren?

E. Gure arimea bacocharen epai edo sentenziaren ostean joangoda, edo inpernura, edo purgatoriora edo zerura berac merezico daben lez.

† 187 G. Zer da inpernua?

E. Inpernua da Jaungoicoac gaisto eta charrentzat izentaurico lecu miñezco eta mardaricatua nun, beti betico eta Jaungoicoaren arpeguiric iñoiz icusico estabena.

† 188 G. Nortzuc doaz inpernura?

E. Pecatu astun edo mortalian ilten diran guztiac doaz inpernura.

† 193 G. Eta Zerua, zer gauza da?

E. Zerua da Jaungoicoa icusi eta maitatuaz atzeguiñ beti betico, zorientasun esan es aituteco baño aundianetan arima onac izateco Jaungoicoac berac ipinico lecu, nun esetarico miñ, neque ez atzacabec daucan sarreraric.

† 194 G. Nortzuc doaz zerura?

E. Jaungoicoaren adisquedetasun edo grazian ilten diranac doaz zerura.

Bigarren Zatia

ZER ESCATU BIARDAN ETA AMA ELEISA SANTUAREN ERREGUAC

† 202 G. Aita gurea esaizu.

E. Aita gurea zeruetan zagozana, santificatu bedi zure izena, betor gugana zure erreinoan, eguin bedi zure borondatea, zelan zeruan alan lurrian.

Jauna, egunian eguniango gueure oguia gaur emon eguizu, parcatu eiguzuz gueure zorrac, guc gure sordunai parcatzen deutseguzales eta ez eiguzu ichi tentaziñoan jausten baña bai libragaizuz gachetic. Amen.

† 205 G. Zer da oraziño eguitea?

E. Oraziño eguitea da Jaungoicoagana biotza jaso eta mesediac escatutia.

† 226 G. Ze oraziño zuzenduten deutsalaguz, gueure, Ama Andra Mariari?

E. Ave Maria ta Salvea, batez be, zuzenduten deutsalaguz gueure Ama Andra Mariari.

† 227 G. Esaizu «Ave Maria».

E. Ave Maria, graziaz betea Jauna da zuzgaz, badeincatua zara zu andra guztien artian eta bedeincatua da zure sabeleco frutua, Jesus.

Santa Maria, Jaungoicoaren ama, erregutu eguizu gu peccatoriogaitic, orain eta gueure eriotzaco orduan. Amen.

† 228 G. Esaizu «Salbea».

E. Jaungoicoac gorde zaizala, erreguiña, erruquiz heterico ama; bizitza gososatun eta icharopen guria; Jaungoicoac gorde zaizala; zuri deiez gagoz Ebaren ume erbestetuoc, zizpuruz eta negarrez, negarrezco lecu onetan: ea bada Andrea bitarteco gueurea, biurtu eguizuz guganutz zeure begui erruquitsuorrec eta erbesteonen ondoren eracutsi egui guzu Jesus, zure sabeleco frutu bedeincatua. Oh biotz biguna. Oh erruquiorra. Oh Maria Virgiña gozoa; Erregutu eguizu gugaitic gueure Ama Santia jarichi daquigun gueugandutia Jesucristoren esquintzariac. Amen.

† 235 G. Esaizu «Gloria».

E. Gloria, Patri ete Filio et Spiritui Sancto. Sicut erat in principio et nunc et semper et in saecula saeculorum. Amen.

† 236 G. Esaizu eusqueraz.

E. Gloria Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari asieran lez orain etabeti guizaldi guztietan azquen baric. Amen.

† 237 G. Ze gaitic amaitzen doguz «Gloria gaz» gueure oraziño guztiac?

E. Irutasun guztiz Santua goratzeco, amaitzen doguz guaure oraziño guztiaz «Gloria» ezanagaz.

Irugarren Zatia

ZER EGUIM BEARDOGUM JAUNGOICOAREN ETA ELEISIAREN AGUINDUAC

† 238 G. Zen bat dira Jaungoicuaren legueco aguinduac?

E. Jaungoicuaren legueco aguinduac dira amar: lenengoa Jaungoicoa maite izatea gauza guztien ganetic.

Bigarrena, ez juramentu alperric coric eguin, ez bere izen santua alperric aotan ez artzea.

Irugarrena, jai egunac ondo gordetea.

Laugarrena, Aita eta ama maitatu eta goratutia.

Bostgarrena, iñor ez iltea.

Seigarrena, araguizco pecaturic ez eguitea.

Zazpigarrena, ez ostutea.

Sortzigarrena, ez guzurric ezatea ta ez dan gauzaric iñori ez ezartea.

Bederatzigarrena, besteren senar ez emateric ez gura izatea.

Amargarrena, iñoren ondasunen gurari bide bacoric ez euquitea.

Amar aguindu onec dagoz bitan sarturic; Jaungoicoa beste guztien ganetic maite izatea eta gueure lagun urco edo projimoa gueure burua lez. Amen.

† 239 G. Zer dago Jaungoicoaren legueco amar aguinduetan?

E. Jaungoicoaren legueco amar aguinduetatic lenengo iruretan dagoz ezalduta gueure Jauna ganaco daucaguzan eguin bearrac eta beste zazpiretan, lagun urco edo projimoganaco, daucaguzanac.

† 254 G. Eta Jaungoicoaren legueco aguindu Santuac ondo bete biardoguz?

E. Bai Jauna Jaungoicoaren legueco aguindu Santu guztiac eta bacochoa bete biardoguz ondo, pecatu dalaco eurac ausi edo ez gordetia.

† 255 G. Zer da pecatua?

E. Pecatua da zerbait Jaungoicoaren leguian galarazoa, ezan, eguin, gogoratu edo gura izatea, edo zerbait bertan aguinduco gauza ez eguitea.

† 316 G. Esan eguizuz Eleisa Ama Santearen aguinduac?

E. Eleisa Ama Santearen aguinduac dira bost: Lenengoa: Domeca ta jai egunetan Meza osoa entzutea.

† 350 G. Nortzuc entzun beardabe meza osoa?

E. Meza osoa entzun bearra dauque adinera eldu diran guztia edo zaspi urtetik goraco cristiñauac.

† 356 G. Nortzuc dira confesao eta comulgao biardabenac?

E. Errazoe edo ezauerara eldu diran cristiñau guztia, confesau eta comulgau biardabe.

† 359 G. Eta ilteco arrizcuan, confesetaco era edo denporaric ezdaucanac, zer eguin beardao?

E. Ilteco arrizcuan aurquitu eta confesetaco era edo denporaric ez daucanac, artu biardau Jaungoicoaren amodiozco pecatuen damua, era dauconean confesetaco gogo eta asmo zintzo baategaz.

Dotrinearen Laugarren Zatia

ARTU BIARDINARAC-SACRAMENTUAC

† 386 G. Zenbat dira Eleisa ama Santuaren Sacramentuac?

E. Eleisa Ama Santuaren Sacramentuac dira zazpi:

Lenengoa, bateoa.

Bigarrena, sendatze edo confirmasiñoa.

Irugarrena, Comuniñoa.

Laugarrena, Confesiñoa.

Bostgarrena, Untziño Santua.

Seigarrena, Ordea.

Zazpigarrena, Ezcontzea.

† 387 G. Zer dira Sacramentuac ?

E. Sacramentuac dira, Jesucristo gure Jau-nac, bere graziac eta onoidadiac guri emoteco ipiniric daucazan azaletico señale edo esauga-
rri batzuc.

† 416 G. Zetaraco ipini eban Jesucristoc Eucaristia derichon Sacramentu guztiz Santua ?

E. Jesucristoc ipini eban Eucaristia deri-
chon Sacramentu guztiz Santua, biardan lez
arturic izan zedin gure arimaco janaria; Jaun-
goicoaren graziaren gueigarria eta gure ari-
maco bizitzaraco sendagarria.

† 417 G. Zer artzen dogu Eucaristia de-
richon Sacramentu guztiz Santuan ?

E. Altaraco Sacramentu gustiz Santua ar-
tzen dogu Jesucristo gure Jauna, Jaungoico
eta guizon eguiascoa, eguiaz eta bene benetan
Sacramentu gustiz Santu orretan dagoana.

† 427 G. Zelan egon biar dau gure ari-
meac comuniñoa artzeco ?

E. Jaungoicoaren grazian egon bear dau
arimeac comuniñoa artzeco.

† 429 G. Eta pecatu astunen baten jausi danac zer eguin bear dau ondo comulguetaco?

E. Pecatu astunian jausi danac ondo comulgueteco, lenengo confesiño on bat eguin beardeu.

† 430 G. Eta confesao ta guero azturico pecatu astunen bat gogoraten bayacu, zer eguin bear dogu?

E. Confesao eta guero azturico pecatu astunen bat gogoratuten bayacu, confesao eguin beardogu pecatu astun ori, edo comulgao baño len edo urrengo confesetan garienian.

† 431 G. Eta ondo comulguetaco, ze guertaera euqui beardogu gorputzaren aldetic?

E. Ondo comulguetaco, pecatu astunaren beyan, juan beardogu barauric, da gauerditic comulgao arte ezerchu be jan ez edan baric.

† 433 G. Ondo eteda sarri comulguetea?

E. Bai Jauna, guztiz ondo da sarritan gueure Jauna artzea.

† 434 G. Zer biarda sarriten eta egunaro be gure Jauna artzeco?

E. Sarri eta egunaro be gure Jauna artzeco, bearrecuac dira Jaungoicoaren grazian gueure arimea euquitea eta asmo edo intenziño zuzenagaz, comulguetan joatea.

† 440 G. Zetaraco da confesiñoco sacramentua?

E. Confesiñoco sacramentua da, bateatu esquero eguindaco pecatuac parcatuteco.

† 442 G. Nos artzen dogu, confesiñoco sacramentu santu au?

E. Artzendogo confesiñoco sacramentu santu au, gueure pecatuac ondo autortu edo confesau ta guero, sazerdotiac absoluziñoa emoten deuscunian.

† 443 G. Confesiño ona eguiteco zenbat gauza bear dira?

E. Confesiño ona eguiteco bost gauza bear dira: esamiñea, damua, onduteco gogo edo asmua, agozco confesiño edo pecatuac autor-tzea eta charto eguiñen ordaintza edo peniten-tzia.

† 444 G. Zer da azterqueta edo esami-ñea?

E. Azterqueta edo esamiñea da, onetara-co bear dan arguitasuna Jaungoicoari escatuta guero, confesau baco pecatuac gogora ecar-teco ardura zintzo bat ipintea.

† 446 G. Damua zer da?

E. Biotzeco garbay edo damua da eguin-daco pecatuen eta ostera iños euretan ez jaus-teco asmuac ecarten deuscun biotzeco zamin-tasuna.

† 449 G. Amodiozco damu au eguiteco erregua ezan eguisu?

E. Neure Jesucristo Jauna, Jaungoico eta guizon eguiascoa, neure eguille eta salbatzailea, zeu zariana zarialaco eta gauza gustiac baño maiteago zaitudelaco; damu dot Jauna, damu dot biotz biotzetico zu iraindua. Artzen dot asmo sendo bat es gueyago pecaturic eguitemeco, eta zu irainduteco bide guztietatic alden-duteco; neure pecatuac confesau ondo eta euren penitentzia eguitemeco. Amen.

† 455 G. Zer da asmo on edo propositoa?

E. Asmo on edo propositoa da artzea erabagui sendo bat, es gueyago pecaturic eguitemeco eta peatureco bide edo ocasiõ char guztietatic aldetaco.

† 457 G. Zer da agozco confesiõoa?

E. Agozco confesiõoa da esan edo aguer-tutia confesoriari eguiatz eta arguiro gueure pecatu astun guztiac, ez gueitu, ez guichitubaric, eta ez guzur ez naste baric norberac daquizen lez eta penitentzia eguitemeco gogoaz.

† 467 G. Penitentzia zer da?

E. Penitentzia da, gueure pecatuac gaitic Jaungoicoari deusagun zorra paguetea confesoriac ipinten deuscun penitentzia beteagaz eta beste artzen doguzan neyue eta eguitada onacaz.

A. M. D. G.



